



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO 2018KO TXOSTENA

OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK

Zerbitzu hau Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dute, eta honako eginkizun hauek ditu:

- a) Pertsoneri eta familiei honako alderdi hauei buruzko informazioa ematea:
 - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioei buruz: zer premia eta egoerei erantzuten dieten; norentzat diren; haiek lortzeko baldintzak eta prozedurak; hala badagokio, aplikatutako prezio publikoa; eskaintzen duten arretaren intentsitatea; hainbat prestazio eta zerbitzu konbinatzeko aukera; prestazio eta/edo zerbitzu bakoitzaz arduratzen den administrazioa.
 - Beren eskubideak eta betebeharrak, premien balioespen bat eta, hala badagokio, gizarte-diagnostiko bat eta Arreta Pertsonalizatuko Plan (APP) bat izateko eskubidea bereziki azpimarratuta.
 - Prestazio eta zerbitzu bakoitzak, eta, hala badagokio, haien modalitateek tartean sartutako pertsona guztiei eragiten dizkieten kostuak eta etekinak, ekonomiari dagokionez ez ezik, denborari, osasunari eta lan-gainkargari dagokionez ere.
 - Eskaeraren bilakaera.
- b) Dagokion pertsonaren eta haren testuinguruaren hasierako balioespena egitea, eta, balioespen horren oinarriaren gainean ondorioztatzen bada beharrezkoa izan litekeela jarraipena egitea eskatzen duen esku-hartze bat, hasierako gizarte-diagnostiko bat egitea; horretarako, pertsona eta familia interesdunen eta haien laguntza-sarearen partaidetza izango da beti, ahal den neurrian.
- c) Pertsonari edo pertsoneri informazioa ematea Zorroaren prestazio ekonomikoari eta/edo zerbitzuari edota prestazioen eta zerbitzuen

konbinazioari buruz, haiek dituzten premiei erantzuteko egokiena zein den jakin dezaten, eta/edo, bidezkoa bada, arreta emateko beste sistema edo politika batzuetako baliabideetara bideratzea.

d) Diagnostikoak horrelakorik gomendatzen badu, kasuan erreferente gisa jardungo duen profesional bat izendatzea. Profesional horrek, pertsona eta/edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat egingo du eta Plan horren kudeaketa hartuko du bere gain, tartean sartutako beste sistema eta agente batzuekin koordinatuta, Arreta Pertsonalizatuko Planean aurreikusitako jardunak abian jarri eta Plan horren jarraipena eta aldizkako ebaluazioa eginez. Hori guztia, kasuaren erantzukizuna erreferentziazko beste profesional baten esku uzten ez denean izan ezik, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 19. artikuluan eta Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera.

e) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko aukera antolatzen bideratutako izapidetze-, kudeaketa- eta koordinazio-eginkizunak gauzatzea.

e) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eta babesa eska dezakeen biztanleriaren gizarte-premiak atzematea eta behar diren jardunei hasiera ematea.

Zerbitzuaren helburu nagusia pertsona eta familia erabiltzaileei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema lortzeko informazioa ematea da, eta, hala badagokio, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek honako izapide hauek egin dituzte 2018. urtean:

1- GIZARTERATZEA / DIRU-LAGUNTZAK ETA PRESTAZIOAK

- DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA (SBE)

Oinarrizko beharriak asetzeko behar beste diru ez duten pertsonen eta familiei euren beharriak asetzeko ematen zaien prestazio ekonomikoa da.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta aldizkako prestazio ekonomikoa da, oinarrizko beharriak asetzeko behar beste diru ez duten pertsonen eta familiei euren beharriak asetzeko ematen zaiena.

LANBIDEn eskatzen da.

2018ko hileko zenbatekoak:


UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA	DIRU SARRERARIK EZ DUEN UNITATE BATI DAGOKION GEHIENEZKO HILEKO ZENBATEKOA
1	717,26€
2	921,02€
3 edo gehiago	1.018,83€

Honako hauek izan ziren pentsio osagarri gisa bermatutako gutxienezko zenbatekoak:

UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA	DIRU SARRERARIK EZ DUEN UNITATE BATI DAGOKION GEHIENEZKO HILEKO ZENBATEKOA
1	822,94€
2	1.028,68€
3 edo gehiago	1.110,97€

Honako Familia Unitate hauek jasotzen dute laguntza:

	urtarrila	abendua
Loiu	20	15
Sondika	63	62
Derio	80	74
Zamudio	68	52
Lezama	28	25
Larrabetzu	27	24




- **ETXEBIZITZAKO GASTUETARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA (EGPO)**

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria, eskubide subjektibo gisa abenduaren 23ko 18/2008 Legean eraturikoa, prestazio ekonomikoa, aldizkakoa da, eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta –edozein izanik ere modalitatea– osatzeko eratu da, prestazio horien titularren ohiko etxebizitza edo bizitokiarekin zerikusia duten premiei aurre egiteko helburuaz.

Askoz jota laguntza hileko 250€koa da. LANBIDEn eskatzen da.

Honako Familia Unitate hauek jasotzen dute laguntza:

	urtarrila	abendua
Loiu	7	6
Sondika	30	34
Derio	30	28
Zamudio	29	28
Lezama	12	15
Larrabetzu	13	10



- **GIZARTE LARRIALDIKO DIRU-LAGUNTZAK (GLL)**

Laguntza ekonomiko hauek gastu arruntei edo bereziei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsoneri ematen zaizkie, eta gastuok bazterkeria sozialeko egoerak arintzeko edo ekiditeko beharrezkoak direnean.

Laguntzok eskatzailearen udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan eskatzen dira.

Larrialdi Sozialeko Laguntzak Udaleko edo Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak emango edo ukatuko ditu.


- 1- Errentaren gastuak.
- 2- Etxebizitza edo bizitokia erosteko, gizarte-larrialdiko egoera baino lehen eskatutako maileguaren interesak ordaindu edo amortizatzeko sortutako gastuak.
- 3- Etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren gastuak.
- 4- Gama zuriko etxe-tresna elektrikoen eta altzarien gastuak.
- 5- Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko edo/eta etxebizitzetan oinarrizko instalazioak egiteko gastuak.
- 6- Elkarbizitza independenteko unitate ekonomikoko pertsona baten edo gehiagoren lehen mailako premiek eragindako gastuak, hala nola jantziak, hezkuntza, prestakuntza eta osasun-laguntza jasotzea, baldin eta sistema publikoek eskaintzen ez badizkiete zerbitzu horiek.
- 7- Gorago aipatutako gastu-moduren batengatik lehenago zorpetuta egoteagatik sortutako gastuak.

Eusko Jaurlaritzak Mankomunitate osorako ematen duen diru-laguntzari, **147.941€koa**, hainbat Entitate, Alderdi Politikoak eta Udal batzuk eman dutena eta Eusko Jaurlaritzak itzulitakoa gehitu beharko da, guztira **72.032,09€**.

Aurrekontu osoa gastatu da modu honetan:

Loiu	13.432€ (EJ)	13.432€
Sondika	32.918€ (EJ) +984,10 € (Entitatea) + 1.944€ (Bildu) + 8.000€ (Ayto) + 3.364,07€ (EJ-ak itzulita)	47.210,17€
Derio	48.431€ (EJ) + 3.587,05€ (Udala) + 6.412,95€ (EJ-ak itzulita)	58.431€
Zamudio	26.107€ (EJ) + € (Udala) + 16.038,44€ (EJ-ak itzulita) + 1.048€ (entitateak)	62.581,44€
Lezama	13.999€ (EJ) + 3.500€ (Entitatea) + 2.000€ (Udala) + 2.245,74€ (EJ-ak itzulita)	21.744,74€
Larrabetzu	13.054€ (EJ) + 2.245,74€ (EJ-ak itzulita) + 2.322€ (entitatea)	17.621,74€

Aurrekontuaren banaketa/Distribución del presupuesto



- GIZARTE INKLUSIORAKO LAGUNTZA BEREZIAREN ESKABIDEA

Gizarteratzeko inklusiorako laguntza berezia

Aldian behingo diru-laguntza finalista eta subsidiario honen helburua oinarrizko beharrianak betetzea eta bazterkeria sozialeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea erraztea da.

Kideen arabera, honako laguntza hauek ematen dira:

UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA	DIRU SARRERARIK EZ DUEN UNITATE BATI DAGOKION GEHIENEZKO HILEKO ZENBATEKOA
1	358,63€
2	460,51€
3 edo gehiago	509,42€

Loiuko herrian 8 eskaera onartu dira eta 2 Sondikan .

- **KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOAK.**

Kotizazio gabeko elbarritasun-pentsioak

Aldian aldiko prestazio ekonomikoa da, eta gradu jakin bateko minusbaliotasuna dutenei eta errenta edo sarrera nahikorik ez dutenei ematen zaizkie.

Onuradunak izango dira akats fisiko edo psikikoak, seguruenik betiko izango direnak, jaiotzetikoak zein bestelakoak, izateagatik ahalbide fisiko edo psikikoak urrituta dituzten pertsonak, eta, gainera, % 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun maila dutenak.

Kotizatu gabeko erretiro-pentsioa

Aldian aldiko prestazio ekonomikoa da, eta 65 urtetik gorakoei eta errenta edo sarrera nahikorik ez dutenei ematen zaizkie.

- **GIZARTE-ONGIZATEKO FONDOKO PENTSIOAK.**

Aldizkako prestazio ekonomikoa da, gizarte zerbitzuen osagarria, adina edo ezintasuna dela eta, oinarrizko beharrianak asetzeko ez lanik egin ez sarrerarik lortu ezin duten pertsonen ematen zaiena.

Bi pentsio mota daude: zahartasunekoak eta ezintasunekoak.

- **CARITASI BIDERATZEAK.**

Loiu	8
Sondika	23
Derio	19
Zamudio	10
Lezama	14
Larrabetzu	4

- **GURUTZE GORRIA.**

2018. urteko otsaila, uztaila eta urrian **jakiak** banandu dira familia hauetara:

Loiu	5
Sondika	28
Derio	48
Zamudio	49
Lezama	11
Larrabetzu	13

BESTE LOTES BATZUK:

Honetaz aparte, **haurren elikadura eta garbitanesurako loteak** 21 familiei banandu dituzte, **gosari eta meriendatzeko loteak** 77 familiei, **eskolako materialeko 12 lote, jostailu berriak** 120 haurrentzat eta **suministroen ordainketarako diru laguntzak** (argia, ura eta gas) 38 familiei onartu zaie.

Aurten **Hurbiltzasun proiektua** hasi da eta bere helburua da bakarrik dauden pertsona nagusiekin telefonikoki kontaktu bat eduki haiekin hitz egiteko eta edozein gai informatzeko.

- **JAKIEN BANKUEN FAMILIAK**

Loiu	14
Sondika	36
Derio	46
Zamudio	41
Lezama	12
Larrabetzu	8

- **SEME-ALABAK IZATEAGATIK** Eusko Jaurlaritzak eta Gizarte Segurantzak ematen dituzten **DIRU-LAGUNTZEI** buruzko informazioa.

2.- ADINEKOAK ETA MENDEKOTASUNAK

- **ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.**

Zerbitzu hori eguneroko bizitzako ekintzak egiteko zailtasunak dituzten pertsonentzat edo familientzat da; baina, batez ere, helduak artatzen dira.

Zerbitzua gero eta errotuago dago eta pertsonak hobeto ezagutzen dute; beraz, gero eta gehiago eskatzen da zerbitzua, biztanleria zaharragoa baita, eta laguntza beharrak eta mendekotasuna handiagoak baitira.

Mendekotasun Legea onetsi zenetik, Mendekotasun Handia dutenei etxez etxeko zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan ere eskatzeko aukera ematen zaie.

Urtearen barruan honako pertsona kopuru hauek artatu ditugu:

Loiu	8
Sondika	36
Derio	51
Zamudio	18
Lezama	10
Larrabetzu	10

- **MENDEKOTASUN EGOERAREN BALORAZIOA.**

Pertsona batzuk mendekotasuna dutela esan ohi da, adinaren, gaixotasunaren edo/eta ezintasunaren ondorioz, gorputzeko, buruko, adimeneko edo zentzumenezko autonomiaren galera edo ezina dutenean, hots, beti beste pertsona baten edo batzuen laguntza-beharra dutenean nahiz beren autonomiarako bestelako euskarri batzuen beharrezana dutenean eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko.

Mendekotasuna balioesteko eskaerak eskatzailearen udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan egiten dira.

3)/2006 legearen arabera, honako mendekotasun mailak ezartzen dira:

- a) Mendekotasun handia: III. gradua, 90-100 puntu
III gradua, 75-89 puntu
- b) Mendekotasun larria: II. gradua, 65-74 puntu
II. gradua, 50-64 puntu
- c) Mendekotasun ertaina: I. gradua, 40-49 puntu
I. gradua, 25-39 puntu

2018ko abenduaren 31n datozen pertsonak mendekotasunarekin baloratuta daude:

Honako hauek dira urtearen barruan eskatu diren balioespenen kopuruak:

Loiu	235
Sondika	407
Derio	487
Zamudio	287
Lezama	195
Larrabetzu	165

Gainera, honako menpeko hauek ari dira jasotzen **FAMILIAN BERTAN ZAINDUAK IZATEKO LAGUNTZAK**:

Loiu	48
Sondika	59
Derio	104
Zamudio	63
Lezama	35
Larrabetzu	39

- TELELAGUNTZA ZERBITZUA.

Eusko Jaurlaritzak berehalako laguntza-zerbitzua ematen die 60 urtetik gorako pertsoneri eta adinagatik, gaixotasunagatik, urritasunagatik, bakardadeagatik edo beste arrazoiren batengatik gizarte-osasun arriskuan dauden pertsona urrituei.

Telelaguntza zerbitzua egunaren 24 orduetan eta urteko egun guztietan dago zabalik. Laguntza horrek prestazio hauek ditu, gutxienez:

- Larrialdian (osasunekoa zein bestelakoak: sua etxean, lapurreta...) diren erabiltzaileei arreta eskaintzea behar diren bitartekoak abiarazita.
- Gizarte-beharrei (krisi pertsonalak, bakardade-krisiak, larritasun-krisiak, osasun-arretarik behar ez duten erorikoak, etab.) arreta ematea eta haien jarraipena egitea, eta behar denean, unitate mugikorren bidez etxeko zerbitzua eskaintzea.
- Erabiltzaileen agendak prestatzea eta kudeatzea; agendari esker erabiltzaileak une bakoitzean, noizean behin zein maiztasun jakin batekin zer egin behar duen jakingo du: medikuaren kontsultak, botikak hartu, kudeaketak, eta beste.
- Erabiltzaileei baliagarri dauden gizarte-bitartekoei buruzko informazioa ematea, bai eta beraien intereseko informazioa ere, oro har.

Honako eskaera kopuru hauek izapidetu dira:

Loiu	14
Sondika	31
Derio	30
Zamudio	28
Lezama	17
Larrabetzu	17

- **ZAINDUZ PROGRAMA**

Zerbitzu honek menpekotasun egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen laguntzarako gizarte eta senide sarearen parte diren zaintzaileei bestea zaintzearen eta norbera zaintzearen inguruko ezagupenak, gaitasunak eta trebetasunak ikasteko aukera ematen die.

2018ko urtean honako jarduera hauek gauzatu dira:

- Informazio-hitzaldiak.
- Prestakuntza-hitzaldiak.
- Oroimena lantzeko tailerra.
- Estresari aurre egiteko erlaxazio-teknikei buruzko tailerra.
- Estimulazio kognitiboari buruzko tailerra.
- Mindfulness tailerra.
- Autonomia pertsonalari buruzko tailerra.
- Taldeko laguntza psikologikoa eta norbere burua zaintzeko tailerrak zaintzaileentzat.
- Bizkar-eskola.
- Norbere burua zaintzeko taldea.

- **GIZATEK.**

Zerbitzu publikoa da helburutzat mendekotasun eta ezintasuna duten pertsonen bizitza-kalitatea hobetzea duena eta norberaren autonomia pertsonala garatzen saiatzen dena, gizartean erabat integratzeko ahaleaginean.

Laguntza Produktuak eskuratzeko Orientazioa eta Egokitasunari buruzko Txosten Teknikoa Lortzeko Eskaera eta Laguntza-Produktuak eskuratzeko Diru-Laguntzarako Eskabideak kudeatzen dira.

- **EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA**

Aldi baterako edo era iraunkorrean erabiltzeko zerbitzua da, I Gradu mendekotasun arriskuan edo egoeran dauden adin nagusiko pertsonari arreta ematen diena, baldin eta Mendekotasunaren Balorazio Baremoan (MBB) 25 eta 39 puntu bitartean baditu.

2018 urtean lau pertsonak erabili dute: Derioko bik, Sondikako batek eta Loiuko batek; bi eskaera daude itxaron-zerrendan: Zamudioko bat eta Larrabetzuko beste bat.

- Adineko eta IMSERSOKO **BIDAIETARAKO** eta IMSERSOKO **BAINUETXETARAKO** eskaerak izapidetzea.

3.- EZINDUAK

Ahalmen urritasunen hautemate azkarra egitea, ezinduei gizarteratzen lagunduko dieten baliabideak eta zerbitzuak garatzea, eta ezindu fisiko, psikiko zein zentzumenetakoen diagnosis, balorazioa eta orientazioa egitea.

- **EZGAITASUNA BALORATZEA ETA BERRAZTERTZEA.**

Minusbaliotasuna gradutan bereizten da, larritasunaren arabera.

Grada ezartzeko irizpide tekniko bateratuak hartzen dira kontuan; irizpideok arauetan ezarritako baremoetan islatzen dira.

Honako eskaera kopuru hauek izapidetu dira:

Loiu	9
Sondika	17
Derio	23
Zamudio	20
Lezama	8
Larrabetzu	6

- ARRETA GOIZTIARRAREN ZERBITZUA.

Ekintza kordenatuen multzo bat da: diziplinarteko ekintza globalak dira, garapenean trastornoak dituzten edo trastornoak izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko haurren beharriari erantzuteko xedea dutenak. Ekintzon bidez haur horien familiei eta inguruneari ere erantzun nahi zaie.

Gizarte-zerbitzuek zein osasun edo hezkuntza-sistemek egiten dituzten ekintzak izango dira, beraz.

- APARKATZEKO TXARTELA.

Udalaren eskumena da urritasun fisiko zein psikiko larria dutenen eta Bizkaiko Foru Aldundiko aldeko irizpena jaso dutenen aparkatzeko txartelak izapidetzea. Txartel horiek titularrak gidatzen duenean, edo/eta ibilgailuan doanean baino ezin dira erabili.

Loiu	
Sondika	
Derio	
Zamudio	
Lezama	
Larrabetzu	

4.- HAURRAK ETA FAMILIA

Haurren babesgabezia kasuak ezin dira multzo homogeen batean sailkatu, haurren osotasun fisikoan eta psikologikoan duten garrantziaren arabera larritasun maila desberdinak dituztelako, eta, aldi berean, babesgabezia egoera eragin eta mantentzen dituzten faktoreak maila askotakoak direlako.

Bizkaiko Gizarte Zerbitzuek gaur egun duten antolakuntzan onartu egiten da haurren arrisku eta babesgabezia egoerak Zerbitzu Oinarrizkoen ardura

direla, baldin eta konplexuegiak ez badira eta esku hartze espezializaturik eskatzen ez badute; ordea, larritasun eta konplexutasun handiagoa duten haurren babesgabezia kasuetan, esku hartze espezializatua behar denean, edo adingabea aldi baterako edo behin betiko bere familiaren ingurutik bereizi beharra dagoenean, Aldundiko Zerbitzu Espezializatuak jardun behar dute.

- GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU HARTZE ZERBITZUA (EISE).

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen osagarri da zerbitzu hau eta helburu du arriskuak, babesik eza, eta gizarte eta familia zailtasunak aurreikustea eta orekatzea.

Zerbitzu honen onuradunak dira adingabeak euren ardurapean dituzten familiak edo helduak eta gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonak.

Mankomunitateko familia hezitzaileek 45 familiarekin lan egiten dute. Familia horiek banakako zein taldekako esku hartzeko zailtasunak dituzten adingabeak dituzte euren kargu.

Honako hauek dira Programaren barruan dauden familien kopuruak:

		itxita
Loiu	4	2
Sondika	10	3
Derio	14	6
Zamudio	17	6
Lezama	4	1
Larrabetzu	5	0

- PSIKOLOGIKOAREN ESKU-HARTZEKO ZERBITZUA.

Adingabeentzat eta familientzat da psikologikoaren ebaluazio, diagnosi eta esku-hartze zerbitzu hau. 2005eko urrian jarri zen abian zerbitzua; izan ere, Mankomunitatea osatzen duten Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ikasleentzako Orientabide Psikologikorako Zerbitzua eskatu zuten. Gizarte, hezkuntza eta osasun sarean dauden baliabideak osatzen ditu zerbitzu horrek.

Zerbitzuak ditu esku-hartzearen bidez prebentzio-izaera, detekzioa eta haurtzaroetako jokaeraren arazo psikologikoen tratamendu goiztiarra eta baztertze sozialaren arrisku garaia sortzen dituzten buru-nahasteetako kronifikazioaren prebentzio forma da.

Halaber, Langile Sozialekin eta Familiaren Hezitzaileekin batera, arrisku-ebaluazio lanak eta babesgabetasuna egiten ditu BALORA , bere min atal psikiko eta emozionalean, Balioespen Tresnan Zerbitzu honetatik desbideratutako kasuetan jasota horrela eska dezaten.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua diñoen bezala, Zerbitzu honek edozein urtetako pertsonak hartzen ditu. Beraz, 2018ko martxoaren 5tik beste Psikologa bat hasi zen lanean astelehenero 10tatik 15:00etara 18 urteko baino gehiago dauzkaten pertsonekin egoteko.

2018. URTEKO LANDUTAKO ESPEDIENTEAK		
UDALERRIA		kopurua
DERIO		16
LARRABETZU		10
LEZAMA		7
LOIU		
SONDIKA		7
ZAMUDIO		10
GUZTIRA		50

Erabiltzaile nagusiak adingabeak direnean, planteatzen den problematika hobetze aldera lagungarri gertatu ahal diren guraso eta seme-alabei ere arreta ematen zaie.

- **FAMILIA UGARIAREN TXARTELA.**

Familia bat ugarizat hartuko da baldin eta guraso bat edo bi eta hiru seme-alaba edo gehiago badira (guraso bienak zein batenak), edo guraso bat edo bi eta bi seme-alaba badira, bat ezindua izanez gero.

5.- EMAKUMEA

Emakume eta Familien Zerbitzuak emakumearen gizarteratzea eta laneratzea sustatzera bideratutako eginkizunak ditu, sexuen arteko berdintasunaren politikaren barruan, baita familiari laguntzeko eginkizunak ere.

- **GENERO INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEENTZAKO PRESTAZIOA.**

Gizarte laguntza horren helburua da biktimari erasotzailearengandik independizatzeko aukera emango dioten gutxieneko bitartekoak eskaintzea. Horrela lortuko da biktima gizarteratzea eta autonomia izatea.

Prestazioa eska daiteke babes-aginduak, Fiskaltzaren txostenak edo epai kondenatzailean ezarritako babes neurriek indarrean irauten duten bitartean.

- **EMAKUMEAK** egoitzetan edo berariazko zentroetan **ALDI BATERAKO HARTZEKO** izapidea. Zentro horiek emakumeen osotasun fisiko edo emozionala eta euren ardurapean dituzten seme-alabena arriskuan jar lezaketen egoera larriei edo/eta elkarbizitzako gatazka larriei erantzuteko dira.

- Emakumea eta Familia Zerbitzuko **AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA.**

Programa honen bidez familia eskubideari buruzko aholkularitza juridikoa emango zaie emakumezkoen eta gizonezkoen, bai eta ustez tratatu txarrak edo/eta eraso sexualak jasaten dituztenei ere.

Laguntza doakoa da behar beste baliabide ekonomikorik ez duten emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat. Udalerrri batzuetan badago horrelako laguntzarik; beraz, udalerrri horietako biztanleak laguntzatik kanpo geratzen dira.

- **USTEZ TRATU TXARRAK EMAN DIRENERAKO** Emakumea eta Familia Zerbitzuko **LAGUNTZA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZURA** (Zutitu) bideratzea.

Ustez tratatu txarrak eta eraso sexualak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programak heldu egin nahi die emakumeek, gizonek eta adingabeek jasandako tratatu txarren eta sexu-erasoen ondorioei, eta aldatu egin nahi ditu portaera bortitzak.

Honako hauek dira esku-hartzearen faseak:

- Diagnostika eta balioespena egitea.
- Banakako Laguntza Psikologikoa: onuradunei laguntza psikologikoko eta psikoterapiako banakako tratamenduak eskaintzea.

- Artatutako kasuen jarraipena egitea.
- Artatutako kasuen balioespena egitea.

Emandako laguntza psikologikoa urgentea (berehalako arriskua dagoenean), doakoa eta espezializatua izango da.

6.- ETORKINAK

- Eusko Jaurlaritzako **ETORKINENTZAKO GIZARTE ETA LEGE AHOLKULARITZAKO** kasuak bideratzea.

Eusko Jaurlaritzak sortu duen eta euskal udalerrri guztiekin sarean lan egiten duen zerbitzua da. Zerbitzu horretan lege aholkularitza eskaintzen zaie legez kanpoko egoeran dauden etorkinei.

7- BESTE BATZUK

- Honako **HITZORDU** hauek izan ditugu:

Loiu	272
Sondika	617
Derio	634
Zamudio	607
Lezama	289
Larrabetzu	286

- Honako **ETXEKO BISITA** hauek egin ditugu:

Loiu	33
Sondika	118
Derio	157
Zamudio	59
Lezama	32
Larrabetzu	34

- Noiz behinkako **BILERAK** izan ditugu honako hauekin:

Gizarte Eta Hezkuntza arloko Esku Hartze Taldea (EISE)
 Manuela psikologoa
 Cáritas
 Txorierriko Osasun Zentroekin

Zerbitzu pribatuko enpresak

- **PENTSIODUN, FAMILIA UGARI ETA LANGABETUENTZAKO GIZARTE BONOIA** izapidetzea.

- **Lanbidera eta EGAZra eta beste zerbitzu batzuetara** bideratzea.

Derion, 2019ko apirilaren 4an

GIZARTE LANGILEAK